

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

FUTBOL ZELAIAN

Neska-mutilak futbol zelaian, futbolera jolasten ari dira.

Igorrek baloia hartzen du eta aurrera doa. Igorri futbola asko gustatzen zaio eta oso trebea da.



Igorrek ostikada ematen dio baloiari eta indarrez botatzen du. Atezainak ezin du baloia gelditu eta Igorrek atean sartzen du.

Ondoren, Josuk hartzen du baloia eta Imanoli pasatzen dio. Imanolek ostikada ematen dio baloiari eta indarrez

botatzen du. Baina atezaina orain,
eskuakin oso ondo gelditu du baloia.

-Oso ondo, Shilin!-esaten du Anek.

Shilin pozik dago,
baina eskuak
minduta ditu.



-Shilin! Hurrengoan
eskularruak ekarri!- esaten dio Igorrek.

2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

1.- Neska-mutilak _____ daude.

2.- Neska-mutilak _____ jolasten ari dira.

3.- Igorri _____ gustatzen zaio.

4.- Igorrek baloia _____ sartzen du.

5.- Shilinek _____ minduta ditu.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN:

Igor futbolera jolasten ari da.

Igorri futbola gustatzen zaio.

Jon eta Mirenekin jolasten ari da.

Igorrek baloia Mikeli pasatzen dio.

Igorrek baloia atean sartzen du.

Shilinek hankak minduta ditu.

EGIA	GEZURRA

4.- ESALDIAK OSATU.

1.-Igor _____ jolasten ari da.

2.- Igorri _____ gustatzen zaio.

3.- Igorrek baloia _____ sartu du.

4.- Shilinek _____ minduta ditu.